

ARAMOTZ MENDI LASTERKETA 2026

ARAUDIA / REGLAMENTO

EUSKARA

1.- Data eta lekua Aramotz MENDI LASTERKETA 2026ko urriaren 17an izango da, Amorebieta-Etxanon (Bizkaia), Zornotza Mendi Taldeak antolatuta.

- **Aramotz Mendi Martxa:** 08:30
- **Aramotz Mendi Lasterketa 22K:** 10:00etan
- **Aramotz Mendi Lasterketa 12K:** 11:30ean

2.- Lasterketa luzearen ibilbidea (22K) Probak 22 kilometro eta 1.300 metroko desnibel positibo metatua ditu. Urkiolako Parke Naturalaren barruan dagoen Aramotz mendilerroko bidezidor eta pistetatik igarotzen da, Pagozelai, Urtemondo eta Belatxikieta tontorrak zeharkatuz.

3.- Lasterketa laburraren ibilbidea (12K) Probak 12 kilometro eta 650 metroko desnibel positibo metatua ditu, Aramotz mendilerroko bidezidor eta pistetatik, Belatxikieta tontorra igarota.

4.- Mendi martxaren ibilbidea (15K) Probak 15 kilometro eta 800 metroko desnibel positibo metatua ditu Aramotz mendilerroan zehar.

5.- Parte-hartzea eta adin-mugak Probaren egunean 18 urte beteta dituzten atleta, mendizale zein kirolari guztiek hartu ahal izango dute parte (gehienez 750 parte-hartzaile guztira). Parte-hartzaile guztiek araudi hau bete beharko dute eta probaren zein mendiko lasterketen zailtasunaren jakitun direla aitortzen dute.

- **Adingabeak:**
 - **Lasterketa laburra (12K):** Gurasoen edo tutoreen baimena duten 14 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.
 - **Mendi martxa (15K):** Gurasoen edo tutoreen baimena duten 14 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.
 - *Oharra:* Dortsala jasotzeko momentuan ezinbestekoa izango da gurasoen baimen-orria aurkeztea.

6.- Kategoriak

- **Lasterketa luzea (22K):**
 - GIZONEZKO ABSOLUTUA
 - EMAKUMEZKO ABSOLUTUA
 - LEHENENGO ZORNOTZARRAK (gizonezkoa eta emakumezkoa)
- **Lasterketa laburra (12K):**
 - GIZONEZKO ABSOLUTUA
 - EMAKUMEZKO ABSOLUTUA

7.- Izen-ematea Izena emateko epea **2026ko martxoaren 9an** zabalduko da <https://web.rockthesport.com/> plataformaren bidez, eta **2026ko urriaren 11n** itxiko da, edo plazak betetzen direnean.

8.- Bajak eta diru-itzulketak Baja-eskaerak **irailaren 6ra arte** onartuko dira. Kudeaketa-gastuak parte-hartzailearen kontura izango dira, eta antolatzaileek salbuespen kasu bakoitza aztertuko dute. Irailaren 6aren ondoren jakinarazitako bajetan ez da izen-ematearen dirurik itzuliko.

9.- Prezioak eta izen-ematearen eskubideak

- **22K Lasterketa:** 24 € abuztuaren 31ra arte; 28 € data horretatik aurrera.
- **12K Lasterketa:** 16 € abuztuaren 31ra arte; 20 € data horretatik aurrera.
- **15K Mendi Martxa:** 12 € abuztuaren 31ra arte; 16 € data horretatik aurrera.
(*Opari gisa kamiseta eskuratzeko, irailaren 20a baino lehen eman beharko da izena*).

Egunean bertan ez da izen-ematerik onartuko. Izen-ematearen kuota ordaintzeak probako zerbitzu guztiez gozatzeko eskubidea emango die parte-hartzaileei (hornidurak, osasun-zerbitzua, dutsak, kontsigna, aseguruia eta korrikalariaren poltsa opari oroigarriarekin).

10.- Seinaleztapena Ibilbidea behar bezala seinaleztatuta egongo da adierazpen-kartel, baliza-zinta eta banderatzu ikusgarriekin. Nahitaezkoa da antolatzaileek markatutako ibilbide ofiziala egitea.

11.- Materiala

- **Nahitaezkoa:** Edalontzia, *soft-flash*-a edo botilatxoa horniduretan erabiltzeko (ez da edalontzi botagarririk egongo).
- **Gomendatua:** Oinetako eta jantzi egokiak erabiltzea, eguraldiaren iragarpena eta probaren zailtasuna kontuan hartuta. Oso gomendagarria da haize-babesgarria (txanoduna eta mahuka luzeduna) edo lepo-babesgarria (*buff*) eramatea.
- Antolatzaileek eskubidea izango dute, eguraldi baldintzek hala eskatuta, euri-babesa edo haize-babesa nahitaezko bilakatzeko.

12.- Dorsalak ematea eta kontsigna-zerbitzua Dorsalak Zubiondo Parkean emango dira probaren egunean bertan, **08:00etatik aurrera**. Dorsala norberarena eta besterenezina da, eta nahitaezkoa izango da **NAN jatorrizkoa** erakustea. Bertan kontsigna-zerbitzua egongo da.

13.- Irteera-ordutegiak Guztiak Amorebieta-Etxanoko Zubiondo parketik irtengo dira urriaren 17an:

- **Mendi Martxa:** 08:30ean (*martxa hasi aurretik kafea eta pastak hartzeko aukera egongo da*).
- **Lasterketa 22K:** 10:00etan.
- **Lasterketa 12K:** 11:30ean.

14.- Kontrol-puntuak Irteera- eta helmuga-puntuez gain, nahitaez igaro beharreko kontrol-puntuak egongo dira:

- **Lasterketa 22K:** Galdarako bidegurutzea (8. km), Urtemondoko lepoa (15. km) eta Belatxikieta (16. km).
- **Lasterketa 12K:** Belatxikieta (7. km).

15.- Hornidura-guneak Ez da edalontzirik egongo horniduretan.

- **Lasterketa 22K:**

5,5. km (Kabreruen): Likidoa.

10. km (Markue txabola): Solidoa eta likidoa.

16. km (Belatxikieta): Solidoa eta likidoa.

- **Lasterketa 12K:**

5,5. km (Kabreruen): Likidoa.

7. km (Belatxikieta): Solidoa eta likidoa.

- **Mendi Martxa 15K:**

5,5. km (Kabreruen): Likidoa.

10. km (Belatxikieta): Solidoa eta likidoa.

16.- Gehienezko denborak eta deskalifikazioak

- **Lasterketa 22K:** Helmugaratzeko gehienezko denbora: 3:30 ordu. Tarteko muga: Galdarako bidegurutzean (8. km) 1:45 ordu. Denbora horretan sartzen ez den korrikalaria ibilbide alternatibotik bideratuko da.
- **Lasterketa 12K:** Helmugaratzeko gehienezko denbora: 2:30 ordu.
- **Mendi Martxa 15K:** Helmugaratzeko gehienezko denbora: 5:30 ordu.

Antolatzaileek parte-hartzaileak probatik erretiratzeko edo deskalifikatzeko ahalmena izango dute honako kasu hauetan:

- Kontrol-denborak betetzen ez badituzte.
- Markatutako ibilbidea osorik bete ez badute.

- Arauzko dortsala agerian eramaten ez badute.
- Antolatzaileen jarraibideei jaramonik egiten ez badiote.
- Kiroltasunik gabeko jarrera badute edo nekeagatik gaitasunak murriztuta dituztela uste bada.
- Nahitaezko materiala ez badute.

Deskalifikatutako parte-hartzaileek dortsala utzi beharko dute hurbileneko kontrol-postuan. Antolakuntzak bi pertsona jarriko ditu lasterketa ixteko (*atzerako itxiera*).

17.- Segurtasuna eta osasun-laguntza Antolatzaileek langile espezializatuak eta osasun-zerbitzuak jarriko dituzte ibilbidean zehar, irteeran eta helmugan. Lasterketa utziz gero, lehenbailehen jakinarazi behar zaio antolakuntzari. Antolatzaileek eskubidea izango dute ibilbidea aldatzeko edo proba bertan behera uzteko, egoera meteorologikoagatik edo ezinbesteko arrazoiengatik.

18.- Dutzak Dutzatzeko aukera egongo da Ganeko kiroldegian.

19.- Sariak eta sari-banaketa Sari-banaketa **13:00etan** hasiko da, gutxi gorabehera, helmugan.

- **22 km-ko Lasterketa:**
 - **1. sailkatua (G/E):** Txapela, 200 €, garaikurra, otzara eta Uxarte sagardo-kutxa.
 - **2. sailkatua (G/E):** 150 €, garaikurra, otzara eta Uxarte sagardo-kutxa.
 - **3. sailkatua (G/E):** 100 €, garaikurra, otzara eta Uxarte sagardo-kutxa.
 - **1. Zornotzarra (G/E):** Otzara, bi pertsonentzako bazkaria eta Uxarte sagardo-kutxa.
- **12 km-ko Lasterketa:**
 - **1. sailkatua (G/E):** Garaikurra, otzara eta Uxarte sagardo-kutxa.
 - **2. sailkatua (G/E):** Garaikurra eta Uxarte sagardo-kutxa.
 - **3. sailkatua (G/E):** Garaikurra eta Uxarte sagardo-kutxa.

20.- Epaimahaia eta Erreklamazioak Lasterketako Epaimahaia Lasterketako Epailleak eta Zuzendariak osatzen dute. Probaren garapenari buruzko erreklamazioak 13:30ak arte aurkeztu ahal izango dira helmugan.

21.- Ingurumena eta Arautegia Proba ingurune natural babestuan egiten da. Guztion betebeharra da ingurunea zaintzea. Zaborrak hornidura-guneetatik 100 metrora dauden ontzietan soilik bota ahal izango dira. Arau hau ez betetzeak deskalifikazio zuzena ekarriko du. Urkiolako Parke Naturalaren araudia jarraituz, **debekatuta dago txakurrekin parte hartzea.**

22.- Laguntza, Erantzukizuna eta Irudi-eskubideak

- Parte-hartzaileak behartuta daude laguntza behar duten zaurituei laguntzera. Antolakuntzak ez du bere gain hartuko ezbeharren erantzukizunik; horregatik, federatuta egotea gomendatzen da.
- Parte-hartzaileek irudi-eskubideak lagatzen dizkiote antolakuntzari probaren argazkiak eta bideoak sustapen-helburuetarako erabili ahal izateko.

23.- Proba puntuagarria eta Araudi osagarria Lasterketa **Durangaldeko Kopa Trail** txapelketarako proba puntuagarria da. Araudi honetan zehaztu gabeko guztian, Euskal Mendizale Federazioaren (EMF) mendiko lasterketen araudia aplikatuko da.

CASTELLANO

1.- Fecha y lugar La **ARAMOTZ MENDI LASTERKETA** se celebrará el **17 de octubre de 2026**, con salida y llegada en la localidad de Amorebieta-Etxano (Bizkaia), organizada por Zornotza Mendi Taldea.

- **Aramotz Mendi Martxa (15K):** 08:30 h
- **Aramotz Mendi Lasterketa 22K:** 10:00 h
- **Aramotz Mendi Lasterketa 12K:** 11:30 h

2.- Recorrido carrera larga (22K) La prueba cuenta con un recorrido de 22 kilómetros y 1.300 metros de desnivel positivo acumulado, discuriendo por los senderos y pistas de la Sierra de Aramotz dentro del Parque Natural de Urkiola, pasando por las cimas de Pagozelai, Urtemondo y Belatxikieta.

3.- Recorrido carrera corta (12K) La prueba cuenta con un recorrido de 12 kilómetros y 650 metros de desnivel positivo acumulado, discuriendo por los senderos de la Sierra de Aramotz y pasando por la cima de Belatxikieta.

4.- Recorrido Mendi Martxa (15K) La marcha no competitiva cuenta con un recorrido de 15 kilómetros y 800 metros de desnivel positivo acumulado por los senderos de la Sierra de Aramotz dentro del Parque Natural de Urkiola.

5.- Participación y edad mínima Podrán participar todos los atletas, montañeros o deportistas mayores de 18 años (cumplidos el día de la prueba), hasta un máximo de 750 participantes en total. Todos los inscritos están obligados a cumplir con el presente reglamento y reconocen ser conocedores de la dificultad técnica y física de la prueba.

- **Menores de edad:**
 - **Carrera corta (12K):** Podrán inscribirse mayores de 14 años con autorización firmada de sus padres o tutores.
 - **Mendi Martxa (15K):** Podrán inscribirse mayores de 14 años con autorización firmada de sus padres o tutores.
 - *Nota:* Será obligatorio presentar la autorización firmada en el momento de recoger el dorsal.

6.- Categorías

- **Carrera Larga (22K):**
 - ABSOLUTA MASCULINA
 - ABSOLUTA FEMENINA
 - PRIMER Y PRIMERA ZORNOTZARRA
- **Carrera Corta (12K):**
 - ABSOLUTA MASCULINA
 - ABSOLUTA FEMENINA

7.- Inscripciones El período de inscripciones se abrirá el **9 de marzo de 2026** a través de la plataforma <https://web.rockthesport.com/>, y finalizará el **11 de octubre de 2026** o cuando se completen las plazas disponibles.

8.- Bajas y devoluciones Se aceptarán las solicitudes de baja hasta el **6 de septiembre de 2026**. Los gastos de gestión correrán a cargo del participante y cada caso será analizado por la organización. Las bajas comunicadas después del 6 de septiembre no tendrán derecho a devolución del importe de la inscripción.

9.- Precios y derechos de inscripción

- **Carrera 22K:** 24 € hasta el 31 de agosto / 28 € a partir del 1 de septiembre.
- **Carrera 12K:** 16 € hasta el 31 de agosto / 20 € a partir del 1 de septiembre.
- **Mendi Martxa 15K:** 12 € hasta el 31 de agosto / 16 € a partir del 1 de septiembre. *(Para conseguir la camiseta conmemorativa será necesario inscribirse antes del 20 de septiembre).*

No se admitirán inscripciones el mismo día de la prueba. El pago de la cuota da derecho a participar en la prueba con todos sus servicios incluidos (avituallamientos, asistencia médica, duchas, consigna, seguro de accidentes y bolsa del corredor con regalo conmemorativo).

10.- Señalización El recorrido estará debidamente señalizado con carteles indicadores, cintas de balizamiento y banderines visibles. Es estrictamente obligatorio realizar el recorrido oficial marcado por la organización.

11.- Material obligatorio y recomendado

- **Obligatorio:** Vaso, bidón o recipiente tipo *soft-flash* para los avituallamientos (no se proporcionarán vasos desechables).
- **Recomendado:** Calzado y vestimenta adecuados al terreno y a las condiciones meteorológicas. Se recomienda encarecidamente llevar una chaqueta cortavientos con capucha y manga larga, o en su defecto, tubular/buff.
- La organización se reserva el derecho de exigir cortavientos o chubasquero si las condiciones meteorológicas así lo exigen.

12.- Entrega de dorsales y consigna La entrega de dorsales se efectuará en el Parque Zubiondo el mismo día de la prueba a partir de las **08:00 h**. El dorsal es personal e intransferible, siendo obligatorio presentar el **DNI original** para su recogida. En el mismo punto estará habilitado el servicio de consigna.

13.- Salidas Todas las salidas se realizarán desde el Parque Zubiondo el 17 de octubre:

- **Mendi Martxa 15K:** 08:30 h *(habrá café y pastas para los participantes antes de la salida).*
- **Carrera 22K:** 10:00 h.
- **Carrera 12K:** 11:30 h.

14.- Puntos de Control Además de los puntos de salida y meta, será obligatorio pasar por los siguientes controles intermedios:

- **Carrera 22K:** Cruce de Galdara (Km 8), Collado de Urtemondo (Km 15) y Belatxikieta (Km 16).
- **Carrera 12K:** Belatxikieta (Km 7).

15.- Avituallamientos No habrá vasos en los avituallamientos.

- **Carrera 22K:**
 - Km 5,5 (El Cabrero): Líquido.
 - Km 10 (Chabola Markue): Sólido y líquido.
 - Km 16 (Belatxikieta): Sólido y líquido.
- **Carrera 12K:**
 - Km 5,5 (El Cabrero): Líquido.
 - Km 7 (Belatxikieta): Sólido y líquido.
- **Mendi Martxa 15K:**
 - Km 5,5 (El Cabrero): Líquido.
 - Km 10 (Belatxikieta): Sólido y líquido.

16.- Tiempos de paso y descalificaciones

- **Carrera 22K:** Tiempo máximo de meta: 03:30 h. Corte horario en Cruce de Galdara (Km 8): 1 h 45 min. Quien no supere este tiempo será desviado por un recorrido alternativo.
- **Carrera 12K:** Tiempo máximo de meta: 02:30 h.
- **Mendi Martxa 15K:** Tiempo máximo de meta: 05:30 h.

La organización tendrá potestad para retirar de la prueba a los participantes que:

- No cumplan con los tiempos de corte establecidos.
- No hayan completado el recorrido marcado.
- No lleven el dorsal reglamentario de forma visible.
- Desatiendan las indicaciones de los organizadores.
- Mantengan una actitud antideportiva o mermas físicas evidentes.
- No dispongan del material obligatorio.

Los participantes descalificados deberán hacer entrega del dorsal en el puesto de control más cercano y abandonar la prueba. La carrera contará con corredores de cierre (*escobas*).

17.- Seguridad y Asistencia sanitaria La organización dispondrá de personal especializado y servicios sanitarios a lo largo del recorrido y en la zona de salida/meta. En caso de abandono, es obligatorio comunicarlo lo antes posible al personal de la organización. La organización se reserva el derecho de modificar el recorrido o suspender la prueba por fuerza mayor o condiciones meteorológicas adversas.

18.- Duchas Habrá opción de ducharse en el Polideportivo de Gane.

19.- Premios y entrega de trofeos El reparto de premios comenzará a las **13:00 h** aproximadamente en la zona de meta.

- **Carrera 22K:**
 - **1.º y 1.ª Absoluta:** Txapela, 200 €, trofeo, cesta de productos y caja de sidra Uxarte.
 - **2.º y 2.ª Absoluta:** 150 €, trofeo, cesta de productos y caja de sidra Uxarte.
 - **3.º y 3.ª Absoluta:** 100 €, trofeo, cesta de productos y caja de sidra Uxarte.
 - **1.º y 1.ª Zornotzarra:** Cesta de productos, comida para dos personas y caja de sidra Uxarte.
- **Carrera 12K:**
 - **1.º y 1.ª Absoluta:** Trofeo, cesta de productos y caja de sidra Uxarte.
 - **2.º y 2.ª Absoluta:** Trofeo y caja de sidra Uxarte.
 - **3.º y 3.ª Absoluta:** Trofeo y caja de sidra Uxarte.

20.- Jurado de carrera y Reclamaciones Está compuesto por el Juez de Carrera y el Director de Competición. Atenderá las reclamaciones presentadas por escrito hasta las **13:30 h** en la zona de meta.

21.- Medio ambiente y normativa La prueba discurre en su mayor parte por un espacio natural protegido. Es obligación de todos preservar el entorno. Solo se podrán arrojar desperdicios en los contenedores ubicados hasta 100 metros después de cada avituallamiento. El incumplimiento de esta norma acarreará la descalificación directa. Por normativa del Parque Natural de Urkiola, **está estrictamente prohibido participar con perros.**

22.- Auxilio, Responsabilidad y Derechos de imagen

- Los participantes están obligados a auxiliar a los accidentados. La organización no se hace responsable de las incidencias derivadas de la prueba, recomendándose estar federado.
- Los participantes ceden los derechos de imagen a la organización para la difusión y promoción del evento.

23.- Prueba puntuable y Reglamento adicional La carrera es puntuable para la **Durangaldeko Kopa Trail**. En todo lo no dispuesto en este reglamento se aplicará la normativa vigente de la Federación Vasca de Montaña (EMF).